



Argazkia: Imanol Olegi

"Ez dut esaten Pantanik EPOa hartu zuenik, baina emandako emaitzak (%52) zalantza sortzen dit. Orduetik hona, egoerak hobera egin du dopinari dagokionez".

aldiz afizionatu mailan odol azterketak egingo dira. Dirudienez, gainera, Madariaga jaunaren ekime- nez egingo dira...

Nik orduan esandakoa berresten dut, baina ez da erraza txirrindularitza mundua garbitzea, interes asko dago eta. Esaterako, mutil batek EPOa hartzen duela esaten baduzu, etsaitzat hartuko zaitu, bere garapena oztopatu nahi duzulakoan edo.

Nire egitekoa harrobia zaintzea izan da beti, eta amorrua ematen dit txirrindulariak onartu ezineko bide- etatik joatea. Gainera, taldean dituzun hogeitabost txirrindularien bizitza ezin duzu gau eta egun kontrolatu, beraz, horrelako kontrolekin arazoari irtenbidea eman dakiok.

Hala ere, hematokrito portzentaiak EPOa hartuta ezezik, beste arrazoi batzuegatik ere gora egin dezakeela dirudi.

«Italiarrek badakite Euskal Herrikoa txirrindularitza harrobi ona dela»


Beraz, fidagarriak al dira odol azterketak?

Bai, egia da altuera edota desidratazioaren argudioak erabiltzen direla hematokrito portzentaiak altuak arrazoitze-ko, baina niri argudio horiek susmagarriak iruditzen zaizkit. Pantaniri Giroan gertatutakoa gogorra izan zen berarentzat eta txirrindularitzarentzat, baina ziur nago orain txirrindulariek bi aldiz pentsatuko dutela EPOa hartu baino lehen.

Ez dut esaten Pantanik EPOa hartu zuenik, baina emandako emaitzak (%52) zalantza sortzen dit. Orduetik hona, egoerak hobera egin du dopinari dagokionez.

Pilotari donostiarrak protagonistak Ogetan eta Labriten

Mikel Unanue aňorgatarrak eskuz binakako pilota finala jokatu du igandean, hilak 12, Ogetan. Aňorgakoak Errasti izango du lagun atzeko koadroetan Titin eta Lasari aurre egiteko. Ez dago faborito argirik final honetarako, bi aurrelariak izugarritzko jokoa erakutsi baitute txapelketa osoan. Atzelariei dagokionez, Lasa ondo jokatzen ari da eta Errastik ere maila ona eman du. Partidua 18.00etan jokatu da Gasteizen. Finala Donostian jokatzea zen baina Anoetako errebotea atzeratzeko lanak bukatu gabe daudenez, Gasteizera eraman dute.



Bestalde Koka altzatarrek buruz buruko partidua jokatu du Barriolaren aurka. Larunbatekoa donostiarraren lehen partidua izango da eskuz banakako txapelketan eta Labriten jokatu du.

Izotz hockeyko kopa kanporaketak

Hilaren 10 eta 11n jokatu dira Donostiako izotz jaur-egian aurtengo kopako lehen kanporaketak. Gasteiz, Jaca eta Txuri Urdin taldeek elkarren aurka jokatu beharko dute. Txuri Urdinek ostiralean eta larunbatean jokatu ditu bere partidua, gaueko 22.00etan lehena, eta 19.45etan bigarrena. Igandean berriz, Jaca eta Gasteizek elkarren aurka jokatu dute. Hiru talde haue- tatik lehen biek lortuko dute azken kanporaketa jokatze-ko txartela.

Cesar Perez hirugarren Zumaian

Cesar Perezek lasterketa bikaina egin zuen Zumaia-ko krosean. Donostiarrak hirugarren postua eskuratu zuen 10.200 metroko lasterketan.